

40 egunez egun

2012ko ekaina-uztaila



Beasaingo udal aldikaria

beasain



Beasaingo udala

Arana kalea oinezkoentzat egokituko du udalak

2 festak 3 gizartea 4 urteko balantzea 5 elkarriketa: Mikel Valdibielso (Ehunmiliak)
6-7 hirigintza: Arana kalea eta Igartza-Oleta 8-9 parte-hartzea 10-11 laburrak 12 agenda



Herriko txistulari taldea kalejiran, atzean erraldoiak dituztela.



Sua plazan, Mariaren jaitsieran.



Mota eta kolore guztietako mozorroak atera zituzten kalera.



Duela 50 urteko danborradan parte hartu zuten emakumeei omenaldia.

Aurtengo Loinatz jaien balantzea

Beaingo jaien balorazioa hitz bakar batekin esan beharko bagenu, «ondo» esango genuke. Lehen as-teburuko protagonista euria izan zen, baina hala ere, egitarauko ekitaldirik gehientsuenak egin ziren. Herritarrek gogoz disfrutatu dituzte festak: Mariaren jaitsieran gero eta dantzari gehiagok parte hartzen du; danbor hotsak ozen entzun dira eta aurten ospatu denez danborradaren 50. urteurrena, hasiera hartan parte hartu zuten emakumeei jaso dute omenaldia; Beasaingo artisten lanak ikusi ahal izan dira kartel, argazki, antzerki, dantza eta zeramika erakustaldietan; kirolekoak ere, gogor ekin diote, pilotan, xakean, futbolean, aizkoran, txirrinduan, ... txistorra jan

ahal izan da eta herriko elkarteek prestatu zituzten baba eta mingain goxoak; kuadrillen bazkaria egonkortzen ari da; mozorroek herria okupatu zuten; kontzertuetan entzun eta salto egin zen; barraka, postu eta baserritarren ferian disfrutatzeko aukera izan zen; eta «oooohh!», a ze su-festak lgartzako para-jeparegabeen.

Hala ere, dena «ondo» joan dela esan dezakegun arren, datorren urterako lezioak hartu ditugu, eta hobetu beharreko gauzetan ahaleginduko gara hobetzen eta herritarren nahiak hobeto asetzen. Mila esker jai hauetan, modu batera edo bestera, lagundu duzuen guztioi, zuok gabe ezingo baitzen Loinazko jairik ospatu.

Si tuvieramos que hacer la valoración de las fiestas en una sólo palabra, diríamos que han ido «bien». La lluvia fué la protagonista del primer fin de semana, pero la mayoría de actos se pudieron celebrar. Cada vez participa más gente en la bajada de Mari; la tanborrada infantil ha cumplido su 50 aniversario; la comida de las cuadrillas se está estableciendo, los disfraces tomaron el pueblo... Aunque se puede decir que todo ha ido «bien», intentaremos mejorar en lo posible de cara al año que viene, para satisfacer las necesidades de todos. Dar las gracias a todos los que, de una manera u otra, habéis ayudado en la organización; sin vosotros no podríamos celebrarse las fiestas de Loinaz..

Bizi kalitatea hobetzeko zerbitzuak

Hirugarren adinekoentzako etxez etxeko laguntza, etxebizitza babestuak eta otordu zerbitzuak bideratzen ditu Beasaingo Udalak.

Etxez etxeko laguntza zerbitzua eta etxebizitza babestuak Beasaingo Udalak hirugarren adinekoei eskaintzen dien zerbitzuak dira. Goxara S.L. enpresak (Amaia Ayalak, Goiaz Estensorok eta Begoña Lasak) kudeatzen dituzte.

Udaleko Gizarte Laguntzaileak baloratzen du pertsona bakoitzari zein motatako eta zenbat ordutako zerbitzua dagokion. Eta Goxarak, etxez etxeko laguntza zerbitzua bidez, arreta pertsonala eta etxeko garbiketa zerbitzuak eskaintzen ditu.

Etxebizitza babestuak

Hirugarren adinekoei zuzendutako zerbitzuen barruan, lau etxebizitza babestu ditu egokituta Beasaingo Udalak. Autonomia izatea da berau erabiltzeko

baldintza. Etxebizitza bakoitza lau pertsona bizitzeko egokituta dago. Bakoitzak bere logela du eta Goxarako langileak arduratzen dira etxebizitza garbitu, janaria prestatu eta gainerako beharrak asetzen.

Sutondo janari prestatuak

Hirugarren adinekoen bizi kalitatea hobetzeko helburuz, bada hirugarren zerbitzu bat ere: Sutondo programa. Otorduak prestatu eta etxera eramateaz arduratzen da. Aste guztiko otorduak prestatzen dizkie zerbitzua aukeratzen duten erabiltzaileei.

Zerbitzu horiek behar dituenak edo informazio gehiago nahi duenak, Beasaingo Udaleko Ongizate Sailera joan eta Gizarte Laguntzailearekin hitz egin behar du (943 02 80 75).

La asistencia en casa y los pisos tutelados son dos de los servicios que ofrece el ayuntamiento a las personas de la tercera edad. La empresa Goxara S.L. gestiona dichos servicios. Los servicios sociales del ayuntamiento valoran las necesidades de cada usuario o usuaria, y las asistentes ofrecen servicios de limpieza y cuidado personal. El ayuntamiento también tiene cuatro pisos tutelados para personas de tercera edad con autonomía suficiente para valerse por sí mismas. También existe el servicio Sutondo, que lleva la comida preparada hasta la casa de los usuarios.

•• La asistencia en casa y los pisos tutelados son dos de los servicios que ofrece el ayuntamiento a personas de la tercera edad ••

inkesta egitasmo nagusien inguruan galdezka

Zer iruditzen zaizu Arana kalea oinezkoentzat egokitzea?



Benito Montori

A mi me parece bien, ahora, si le preguntas a los que tienen el coche aquí, no te dirían lo mismo. La calle tendría más anchura, andaría menos tráfico... Con las calles peatonales, el pueblo está de maravilla. Pero habrá que consultar con los que tienen el coche. Hay pocos aparcamientos, y si encima los quitan...

Zer iruditzen zaizu herrian bizikleta plan bat egitea?



Amaia Irastortza

Ondo egongo litzateke, batez ere bidegorri oso bat egiteko. Ezkiagan bizi gara eta herriguneraino ez dago bidegorririk, eta umek espaloitik etorri behar dute. Bidegorri on bat edukita jende gehiago ibiliko litzateke bizikletan. Lazkaoko bidegorria egin dutenetik, familia osoak ikusten dira bizikletan.

Zer iruditzen zaizu Igartza-Oletan aparkalekua egitea?



Iñaki Antia

Badauka berritu baten beharra. Behintzat asfaltatu eta aparkatzeko marra batzuk egin. Lehen ere egon zen proiektu bat hemen lurpeko aparkalekua egiteko, baina ez zen aurrera atera. Ni herrigunean bizi naiz, baina dezentetan etortzen naiz hona, eta aparkatzeko lekua izatea ondo dagoela iruditzen zait.

Urtebeteko agintaldiaren balantzea

Udala egoera ekonomiko zailean aurkitu bazuten ere, «gauzak egiteko beste modu bat» martxan jartzen saiatu direla dio gobernu taldeak; alderdiekin akordioak lortzeko «irekita» daudela diote

Beaingo egungo udal gobernuak urtea bete du. 2011ko udal eta foru hauteskundeetan «aldaketa» gertatu zen, «EAJk ia 20 urte agintean» egin eta gero. Koldo Agirre alkateak, lehen urte honetako agintaldiaren balantzea egin du. Batetik, esan du hauteskunde haietatik atera zen udalbatza «oso anitza» dela; izan ere, sei alderdi ezberdinetako zinegotziek osatzen dute, «eta hori, oso herri gutxitan gertatzen da». Gainera, 17 zinegotzi horietatik zazpi osatzen dute udal gobernu, eta horrek, Agirrerren ustez, «adostasunak lortzera» behartzen ditu, bai gobernu kideak, eta baita oposizioak ere.

Beaingo Udalaren gidaritza hartu zutenean, «egoera ekonomiko zaila» aurkitu zutela azaldu du alkateak. «Foru funtseko dirua itzuli behar izan dugu, eta oraindik itzultzen ari gara. Horrez gain, aprobetxamendu urbanistikoaren etekina ere asko jaitsi da». Horrek eragina izan du aurtengo aurrekontuetan ere, iaz baino «%10 txikiagoak» baitira.

Parte hartzea bultzatuz

Udalak inbertsioetarako diru gutxiago izan arren, «gauzak egiteko beste modu bat» jarri nahi izan dute martxan, lehen urte honetan. Hala, Agirrerren esanetan,

•• Partehartzea handitzea, gardentasuna eta kontuak garbi izatea dira udalaren helburuetako batzuk ••

El gobierno municipal de Beasain ha cumplido el primer año de mandato y el alcalde Koldo Agirre ha hecho balance. Entre otras cosas, ha remarcado «la pluralidad» del pleno municipal, con seis partidos representados. Según dice, al entrar en el ayuntamiento de Beasain se encontraron con una «difícil» situación económica. «Todavía estamos devol-



Koldo Agirre alkatea eta Aitor Larburu udal antolakuntza zinegotzia.

«jendearekin kontaktu handiagoa izaten eta herritarren parte hartzea bultzatzen saiatu gara; horren adibide da legealdiko plana egiteko prozesua». Parte hartzea bultzatu arren, prozesu horietan ez du beraiek nahi adina jende parte hartu, eta aurrera begirako erronka, «ahalik eta jende gehienarengana iristea» izango dela azaldu du. Udal gobernuaren beste helburuetako bat, gardentasuna eta «kontuak garbi» izatea dela esan du Agirrek.

Gobernu gutxiengoan osatu dutela ikusita, «hasieratik akordioak lortzen» saiatu direla azaldu dute gobernu taldekoek, baina gainontzeko alderdiekin adostasunetara iristeko zailtasunak izan dituztela. Hala ere, «egoera arintzen joatea» espero dutela esan du Agirrek, udalbatza osatzen duten alderdiak, «elkarlanean aritzera behartuta» baitaude, Beasainen alde lan egiteko. Alde horretatik, adostasunetara heltzeko «irekita» daudela azaldu du.

viendo dinero del fondo foral y el beneficio del aprovechamiento urbanístico ha disminuido notablemente». Por lo tanto, los presupuestos de este año serán un 10% inferiores a los del año pasado.

Han querido cambiar la manera de hacer las cosas. «Hemos intentado tener más contacto con los vecinos y las vecinas, fomentando la participación» expli-

Legaaldiko plana

Beaingo Udalak maiatzean jarri zuen martxan legealdiko plana osatzeko parte hartze prozesua. Herritarrekin, eragileekin eta udal langileekin egindako bilerak «oso positiboak» izan zirela dio udalak, bertaratu zirenek «interes eta parte hartze maila handia» agertu zutelako.

Horrez gain, egun hauetan herritarren iritziak jasotzeko inkesta banatu dute, etxex etxe.

•• Aumentar la participación, la transparencia y tener las cuentas claras son unos de los objetivos ••

ca Agirre. Conseguir que esa participación aumente, la transparencia y tener las «cuentas claras» son otros de los objetivos. Subrayan el «duro» comienzo, por las dificultades para llegar a acuerdos con los demás partidos. Agirre espera que «la situación se vaya suavizando», ya que cree que los partidos «están obligados a cooperar» entre ellos.

Mikel Valdibielso Ehunmilak probaren antolatzailea

“Lasterketaren aurrealdean gogor joko duen talde oso indartsu bat espero dugu aurten”

Este año se celebrarán por tercera vez las pruebas de montaña Ehunmilak y G2H, cuya salida y meta se situará en Beasain. Mikel Valdibielso trabaja durante todo el año organizando dichas pruebas, coordinando todo el voluntariado y tratando de que sean económicamente viables.

Aurten probarako izena emateko epea luzatu egin duzue. Jendea ari al da animatzen?

Momentuz 150 bat lagun daude proba handian izena emanda, eta txikian beste 190 inguru. Baina azkeneko kolpea egun hauetan espero dugu. Epea luzatzeko arrazoï nagusia, garai honetan beste mendi lasterketa garrantzitsu batzuk jokatzeko direla izan da, tartean Hiru Handien proba. Askok hori hartzen dute proba moduan, fisikoki nola dauden ikusi eta erabakitzeko proba handian edo txikian parte hartuko duten.

Beste proba batzuk termometro moduan erabiltzen ditu, beraz, jendeak.

Guk nabaritu duguna da, jendeak proba egin nahi duela, nola dagoen ikusi, eta nola dakien ia azkeneko egunera arte ez duela izena eman beharrik... Ez dakitena da horrek antolakuntza aldetik zer eragozpen sortzen dituen. Baina beno, epea atzeratzeko arrazoietako bat hori izan da. Inguruan jende asko ezagutzen dugu parte hartuko duena eta oraindik izenik eman ez duena.

Hirugarren edizio honek, ibilbide aldetik, izango al du berrikuntzarik?

Berrikuntza txikiak dira, baina badaude aldaketa batzuk. Garrantzitsuena da, Usurbeko tontorrera igoko gara. Zentzu horretan, Beasain Mendiko jendeari gure esker ona agertu nahi diogu. Zailtasunak genituen puntu hori ibilbidearekin lotzeko, baina aurten, Beasain Mendiko jendeari esker, garai bateko bide bat berreskuratu dugu; beraiek arduratu dira hura garbitzeaz, eta zoragarri gelditu da. Beste aldaketa txikiren bat izango da, baina funtsean ibilbide bera da.



Urte hauetako esperientziarekin, gero eta errazago aterako da dena, ezta?

Ez pentsa, guk ere uste genuen hirugarren urterako dena bere kasa joango zela, baina honek urte osoko lana eskatzen du. Antolakuntzakoak astero biltzen gara urte osoan zehar. Proiektu honi bideragarritasun ekonomikoak ateratzeko ahalegin handia eskatzen du. Diru gutxiagorekin antolatzea egongo litzateke, baina zerbitzuak kenduta; eta gure apustua, kalitatezko lasterketa bat eskaintzea izan da hasieratik.

Babesletza eta laguntza aldetik, nabaritu al duzue krisiaren eragina?


Egoera ekonomikoak ikusita, ezin gara kexatu, babesle nagusiak mantentzen ditugulako, nahiz eta beste batzuk beharra egin duten. Beasaingo komertzioen

•• «La mayor novedad será la subida a la cima de Usurbeko; gracias a la gente de Beasain Mendi hemos recuperado el antiguo camino» ••

aldetik ere sekulako erantzuna jaso dugu, eta ahalegin hori eskertu nahi nuke. Erakundeen aldetik ere diru handirik ez dago. Soziki arlo nabarmenak mantentzeko gai ez badira, nola egingo dute ba lasterketa baten aldeko apustua? Koherentea da, ez gera horrekin kexatzen, badiugu kexatzeko beste arrazoï batzuk. Baina aurten ere, lan asko eginda, aurrera aterako gara.

Eta korrikalarien aldetik, aurreko urteetako irabazleak etortzekoak al dira?

Nik uste aurten talde oso indartsu bat egongo dela aurrealde horretan. Hor dugu Poveda, Venezuelakoa, Tenerifeko 160 kilometroko proba irabazi duena; Austriako bat, Mont Blanc-en laugarren egin duena; Aleson ere etortzekoa da, eta beste bizpahiru izen on ere espero ditugu oraindik. Badago talde bat hor zazpi-zortzi lagunekoa, fuerte jo deza keena lasterketaren aurrealde horretan. Aurten estrategiak garrantzia handia izango du, lasterketa nola joango den esateko. Beste urteetan baino gehiago egon beharko dute elkarriz begira, eta horrek ere lasterketari espektakulu puntu bat emango dio, jarraipen bat egiteko aukera gehiago emango du.



Arana kalea ere oinezkoentzat

Arana kalea eta Bideluzeko zubia oinezkoentzako gune bihurtuko ditu Beasaingo Udalak. Igartza-Oleta kaleko aparkalekua eta Bizikleta Plana ere egingo ditu datozen hilabeteetan.

Beasaingo herrigunean, oinezkoentzako gero eta eremu gehiago dautu. Kale Nagusia oinezkoentzako bihurtuta, Beasaingo herriguneak indar eta bizi handia hartu du. Beasaingo Udalak, ildo beretik jarraitu nahi du, eta oinezkoentzako lekua irabazten jarraitu nahi du. Hurrengo helburua, Arana kalea eta Bideluzeko zubia oinezkoentzako egokitzea dira.

Oinezkoegi garrantzia emateko filosofiarekin jarraituz, Beasaingo Udalak beste bi proiektu ere baditu eskuartean. Batetik, Igartza-Oleta kaleko, Loinatz futbol-zelai ondoko eremua txukundu

eta 116 ibilgailuentzako aparkalekua egitea. Eta bestetik, bizikletaren erabilpena bultzatzeko, datozen sei hilabeteetan Bizikleta plana egitea.

Arana kalea eta Bideluze zubia

Arana kalea eta Bideluzeko zubia oinezkoentzako bihurtzea dira Beasaingo Udalaren obrei dagokienean, aurtengo inbertsio nagusia (400.000 euro inguruko kostua izango du). Ondorioz, Kale Nagusiaren eta J.M. Iturriotz kaleen jarraipena izango da Arana kalea. Aurrerantzean, itxura berdina izango du Arana kaleko eta Bideluze kaleko zoruak.

Plataforma bakarrekoa izango da eta oinezkoek izango dute lehentasuna. «Aurreko udalak bazuen Arana kalearen peatonalizazioan proiektu bat egin da. Semipeatonalizazioa zen. Espalioa eta bidea mantendu egiten ziren. Beste proiektu bat egin dugu, Kale Nagusiko peatonalizazioaren berdina izan dadin. Aldi berean, trafikoa gutxitu» egingo dela dio udalak.

Bideluzeko zubia ere konponduko dute. «Gelditzen den bide zatia kendu eta dena plataforma bakarrekoa jarriko dugu, jarraipena izan dadin», zehaztu du udalak.

Peatonalizando la Calle Mayor, el centro de Beasain ha ganado vida y fuerza. El siguiente objetivo será convertir en peatonales la calle Arana y el puente de Bideluze. El ayuntamiento de Beasain ordenará también el espacio adjunto al campo de fútbol Loinatz, en la calle Igartza-Oleta, y construirá aparcamientos para 116 vehículos. Por otro lado, realizará el plan para bicicletas.

•• Oinezkoentzako lekua irabazi nahi du udalak. Arana kalea eta Bideluzeko zubia peatonalizatu, aparkaleku berria eta bizikleta plana dira hurrengo lan ildoak ••

En cuanto a obras, la mayor inversión de este año serán las peatonalizaciones (479.908,13 euros). La calle Arana será la continuidad de la Calle Mayor y de la calle J.M. Iturriotz. El suelo será de una sola plataforma y los peatones tendrán prioridad. También arreglarán el puente de Bideluze. Quitarán la parte de la carretera que queda y lo pondrán todo al mismo nivel.

Igartza-Oleta kalean 116 ibilgailu hartuko dituen aparkalekua egingo du udalak

Herrigunetik gertu, Igartza-Oleta kalean, Beasainek beste aparkaleku handi bat edukiko du. Orain ere aparkaleku bezala erabiltzen den gunea txukunduko du udalak. «Momentuz, bertan egiteko proiekturik ez dagoenez, dagoen eremua txukundu eta aprobetxatzea erabaki da», dio udalak. Guztira, 116 ibilgailurentzako lekua egokituko da. Kalera irekiko da aparkalekua, orain dauden zuhaixkak bota egingo baitira. Hasiera batean *todo uno* botatzea aurreikusten bazen ere (aurrekontuan 20.000 euroko partida zegoen) urak hartu, argiteria jarri eta asfaltatu egingo da (80.000-90.000 euroko aurrekontua du obrak).



Igartza-Oletan 116 autorentzako aparkalekua egokituko dute.

Beasain dispondrá de un nuevo parking en la calle Igartza-Oleta. El ayuntamiento ordenará la zona que hoy en día se usa como aparcamiento. «Como por el momento no hay ningún proyecto

para realizar en esa zona, se ordenará para sacarle provecho». Se preparará un espacio para 116 vehículos, y el aparcamiento se abrirá a la calle, ya que se quitará el seto que los separa. En

un principio sólo se contempló utilizar *todo uno*. Pero además, se iluminará, se canalizarán las aguas y se asfaltará el solar. La obra tiene un presupuesto total de 80.000-90.000 euros.

Bizikleta plana osatzea, hurrengo erronka

Datozen sei hilabeteetarako badu beste erronka bat Beasaingo Udalak; Bizikleta Plana osatzea. Horrekin, bidegorri sarea osatu eta erabilera arautu nahi ditu. Bizikleta erabiltzaileekin batera egingo dute prozesua, eta herrigunean, bidegorria nondik nora egingo den zehaztu nahi da. «Orain arte bidegorria zatika joan dira egiten baina ez dago plan edo proiektu oso bat», dio udalak. «Proiektua eginez gero, obrak egiten ari diren heinean joango gara gauzatzen. Agintaldi honetan herri barruko bidegorria bukatzea dugu helburua», gaineratu dute. Plan horren barruan, bizikletak gordetzeko aparkaleku itxiak egitea eta bizikletaren erabilera bultzatzeko kanpaina txertatzea ere aurreikusten du udalak.



Senperera doan bidegorri zatia.

•• El ayuntamiento quiere completar la red de bidegorris con la ayuda de los usuarios; dentro del plan también crearán aparcamientos para bicicletas ••

El Ayuntamiento quiere crear un plan para fomentar el uso de la bicicleta en el municipio. Por un lado, quieren completar la red de bidegorris de Beasain, con la ayuda de los usuarios y las usuarias. Dicen que hasta ahora «se han hecho tramos de bidegorri, pero no hay un plan o un proyecto general». Dentro de dicho plan, harán aparcamientos para bicicletas y una campaña para fomentar su uso.

Udalak hainbat parte hartze prozesu jarriko ditu martxan

Tabernetako terrazen ordenantza, kiroldegiko musika taldeen lokalen araudia eta EBPN euskara biziberritzeko plana landuko dituzte, baita udal langileak parte hartzean hezitzeko saio bat ere.

Beaingo Udalak herritarren parte hartzea bultzatzeko hainbat prozesu jarriko ditu martxan datozen asteetan. Hiru proiektu landuko dituzte herritarrekin batera: tabernetako terrazen ordenantza, kiroldegiko musika taldeen lokalen araudia, eta EBPN Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren diseinua. Bestalde, udal langileak parte hartze prozesuen inguruan sentsibilizatzeko saioak ere egingo dituzte, irailean. Biler horien guztien emaitzak kontuan hartuko dituzte datorren urtera begira martxan jarriko diren ordenantza eta proiektuak egiterakoan.

Zezilia Herrador parte hartze zinegotziak azaldu duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak «parte hartze prozesuak martxan jartzeko diru laguntzen deialdia atera zuen, eta udalak lau proiektu aurkeztu zituen». Parte hartze prozesu horiek martxan jartzeko, «Beasainen ez dago horretara bideratutako teknikaririk, eta oso zaila egiten zaigu lan hori egitea inor horretarako egon gabe». Horregatik, Emun aholkularitzarengana jo dute lan horiek guztiak koordinatzeko. «Profesionalak dira, esperientzia handia dute horrelako dinamika eta prozesuetan».

El ayuntamiento de Beasain impulsará cuatro procesos para fomentar la participación ciudadana. Desarrollará tres proyectos con la colaboración de los vecinos y las vecinas: la ordenanza de las terrazas de los bares, el reglamento para los locales de música del polideportivo, y el diseño del Plan General de Promoción del Uso del Euskera. Por otro lado, en septiembre hará reuniones para sensibilizar a los trabajadores municipales en torno a los procesos de participación.

Tal y como ha explicado Zezilia Herrador, «la Diputación Foral de Gipuz-



Herradorren arabera, «Emunekoekin batera, urte osorako plangintza bat diseinatu dugu. Orain koordinatu egin behar ditugu, zinegotziak, teknikariak eta parte hartuko duten herritarrek, lan taldeak osatzeko». Gaiaren arabera osatuko dituzte taldeak; batean tabernari eta herritarrekin, bestean musikari eta gainontzeko erabiltzaileekin... «Emunek egiten duen planteamendua, bere esperientziaren arabera, 10-15 lagunekin lan taldeak egitea da, eta hortik ater-

ratzen diren hausnarketekin eta ideiekin ondorioak ateratzea». Prozesu bakoitzean, hiruna biler egingo dituzte. Han jasotako hausnarketekin, beste bizpahiru astean ondorioak idatziko dituzte.

Udal langileen prozesuari dagokionean, helburua «langileak parte hartze prozesuen inguruan sentsibilizatzea» dela azaldu du Herradorrek. «Udala eta udal funtzionamendua, betidanik nahikoa jeloskorra izan da, eta bakoitzak bere sailari begiratzen dio, udalaren

koa publicó la convocatoria de subvenciones para los procesos de participación, al cual el ayuntamiento presentó cuatro proyectos. Para poner en marcha esos procesos participativos hemos contratado una empresa externa». Será la consultoría Emun la que coordine dichos trabajos.

Como explica Herrador, «Junto a Emun hemos diseñado una planificación para todo el año. Ahora debemos coordinar en grupos de trabajo a técnicos, a concejales y a los y las vecinas que quieran participar». Los grupos de trabajo se compondrán por temas. El

- ● Se desarrollarán tres proyectos: la ordenanza de las terrazas, el reglamento para los locales de música y el diseño del plan general para el uso del euskera ● ●

Bilerak / reuniones:

Terrazten ordenantza

Ekainean hiru bilera izango dira.

- » **1. saioa:** Ekainaren 11tik 17ra.
- » **2. saioa:** Ekainaren 18tik 24ra.
- » **3. saioa:** Ekainaren 25etik uztailaren 1era.

Musika lokalen araudia

Ekaina eta uztaila artean hiru bilera izango dira.

- » **1. saioa:** Ekainaren 25etik uztailaren 1era.
- » **2. saioa:** Uztailaren 2tik 8ra.
- » **3. saioa:** Uztailaren 9tik 15era.

EBPN euskara plana

Iraila eta urria artean hiru bilera izango dira.

- » **1. saioa:** Irailaren 17tik 23ra.
- » **2. saioa:** Irailaren 24tik 30era.
- » **3. saioa:** Urriaren 1etik 9ra.

osotasuna kontuan hartu gabe. Hori haustea oso zaila da, denok ditugulako geure ohiturak. Baina saiakera hori egin nahi dugu. Azkenean denok batera lan eginez gero, emaitza eraginkorragoa izango delako».

Martxan dagoen parte hartze prozesuetako bat lgarzta multzoaren erabile- ra arautzeko egiten ari direna da. Maiaz- taren 29an hasi zen eta pasa den aste- an egin dira azken bilerak. Hilaren 22an inauguratuko dute multzoa, eta or- duan aurkeztuko dituzte ondorioak.

planteamiento de Emun propone grupos de 10-15 personas, de 20 como máxi- mo, y sacar conclusiones con las ideas o reflexiones que salgan de dichos gru- pos. En cada uno de esos procesos ha- rán tres reuniones.

Respecto al proceso de los trabajado- res municipales, Herrador ha explicado que «el ayuntamiento y su funcionamien- to han sido siempre bastante celosos. Cada uno mira a su departamento, sin tener en cuenta la totalidad del ayunta- miento. Es muy difícil romper con eso, pero queremos realizar ese intento. Si trabajamos todos y todas juntos, el resul- tado será más eficaz».



Denis Elortza eta Eider Alustiza •• Emun aholkularitza

“Udalen betebeharra da parte-hartzea bultzatzea”

Udalak martxan jarri dituen parte hartze prozesuak gidatzeaz ardu- ratuko da Emun kooperatiba. Es- perientzia handia dute mota honetako prozesuetan, eta herritarrei parte har- tzeko aukera emateak duen garrantziaz eta lan egiteko duten moduaz aritu dira. **Horrelako parte hartze prozesu bat gi- datzerako garaian, zein da zuen meto- dologia edo lan egiteko modua?**

Herritarren parte hartzea tresna edo bi- tarteko gisa ulertzen dugu udaleko poli- tikak hobetu, garatu eta herritarrenak izateko. Parte hartzea era kontzientean bultzatzea garrantzitsua da, herriaren nortasuna eta identitatea sendotzeko eta herritarrek herriarekiko duten atxiki- mendua handitzeko. Udalean herritar- ren ordezkariek daude eta ordezkaritza hori benetakoa izan dadin, parte hartze prozesuak eta dinamikak beha- rrezkoak dira. Bestela, udal ordezka- rien esku bakarrik geratzen dira politi- kak. Herri bakoitzeko errealiterara ego- kitzen dugu metodologia. Batzuetan herri eragileak antolatutago daude, el- karteek pisu espezifiko handia dute, eta besteetan, berriz, herritar norbanakoe- kin lan egitea komeni da. Beasainen ka- suan, tarteko zerbait izango da. Gaine- ra, hasieran landuko diren sektoreetan premia bereziak eta oso zehatzak sortu dira. Sektore horietan arazoak edo tra- bak daude gai zehatzen inguruan eta horiek jarriko dira mahai gainean, de-

nen artean eztabaidatu eta arautegiak osatzeko.

Nork osatzen dituzte lan taldeak? Nola egituratzen dira saioak?

Norbanakoez gain, herriko eragileek ere parte hartuko dute, udaleko ordez- karekin batera. Guk dinamizazio lanak egingo ditugu. Sektore bakoitzean hiru- na saio egingo ditugu eta arazoa ongi identifikatu eta xehetzeaz gain, sorme- nerako teknikak ere erabiliko ditugu ir- tenbide adostuak bilatzeko.

Jendeak gogo onez parte hartzen al du? Zer ekarpen espero duzue?

Beasaingoa oraintxe ari gara presta- tzen. Ez dakigu zein harrera izango duen, baina ona izatea espero dugu, ir- tenbideak bilatzeko prozesua izango delako, denen onerako.

Beste herrietako esperientziak ikusita, emankorrek al dira saio hauek?

Bai, zalantzarik gabe. Herritarren par- tea hartzea modu ezberdinetara plante- atu daiteke. Herritarrek parte hartzera bultzatu eta erakarri behar dira, horre- tan asmatzean dago gakoa. Eta udalek, noski, parte-hartze hori bultzatzeko be- tebeharra daukate, euren ordezkarie- ren heinean. Parte-hartze ekimenetan gai oso zehatzak proposatzen direne- an, emaitzak askoz hobekak eta eragin- korragoak izan ohi dira. Gai orokorrek eta urrunak izanez gero, ez dira hain onak izaten emaitzak. Zehaztasunetara jotzeko gomendioa egin ohi dugu.

Murumendi eskolako esperientzia

Beasaingo Murumendi ikastetxeko kideek Bilbon egin den irakaskuntza arloko kongresu batean parte hartu dute, Amara Berri sistemaren inguruko azalpenak eman eta esperientzia kontatzeko.

Beasaingo Murumendi ikastetxeak, Amara Berri sistemaren inguruan Bilbon egin dituzten jardunaldietan parte hartu du, proiektuaren inguruko azalpenak eta beraien esperientziaren berri emanez. EAEko 20 ikastetxetan ezarri dute jada Amara Berri egitasmoa; tartean, Murumendin.

Karmele Arraiza Murumendi ikastetxeko zuzendariaren arabera, Amara Berri «ikastetxeko arlo guztiak hartzen dituen sistema globala» da, eta besteak beste, ikasleen parte hartze aktiboan eta ekintzaitasunean oinarritzen da. Arraizaren esanetan, «ikertzea, saiakuntzak egitea eta berritzea» dira sistemaren ezaugarri nagusiak, eta «bizitza errealer ahalik eta gehien» gertatzen den sistema bilatzen dute, hezkuntzaren alde praktikoa gehiago lantzen duena. Hala, taldekako lanei garrantzia berezia ematen diete, eta egungo gizartearen beharretara egokitzen saiatzen dira. Azken urteetan, aldizkaria, irratia eta telebista ere martxan jarri dituzte Murumendi ikastetxean.

Bilboko jardunaldietan, beraien esperientziaren berri eman dute Murumendi-



Amara Berri proiektuan sartuta dauden ikastetxeetako ordezkariak, sailburuarekin.

ko eta Amara Berri sarea osatzen duten beste ikastetxeetako ordezkariak. Isabel Zelaa hezkuntza sailburuak ere parte hartu zuen jardunaldietan. Haren hitzetan, «Amara Berri egitasmoaren arduradunek bere garaiari aurrea hartzeko gaitasuna» erakutsi dute, eta orain arte «etengabeko berrikuntzaren bidean»

erakutsi duten konpromisoari eusteko eskatu zien sarea osatzen duten ikastetxei.

Ekimen horren baitan, beste zenbait ikastetxetako ordezkarien bisita ere izan zuten Murumendikoek, proiektua eta beraien lan egiteko modua bertatik bertara ezagutzeko.

Airearen kalitatea neurtzeko gunea

Airearen kalitatea neurtzeko Eusko Jaurlaritzak dituen 67 guneetako bat Beasainen dago, Gipuzkoa plazan.

Airearen kalitatea kontrolatzeko eta zaintzeko 67 estazioz osatutako sarea du Eusko Jaurlaritzak. Sare hori, sensore modernoekin hornituta dago, eta Europako zuzendaritzak zehazten dituen kutsatzaileak neurtzen ditu, batez ere SO₂, oxido nitrogenoa, ozono troposferikoa, CO eta suspentsio partikulak. Era berean, estazio horrek, haizearen norabidea eta abiadura, tenperatura, hezetasun erlatiboa, presioa, erradiazioa eta prezipitazioa bezalako parametro meteorologikoak



Gipuzkoa plazako neurgailua.

neurtzen ditu. Beasainen, Gipuzkoa plazan dago estazio horietako bat. Haren datuak egunero bulego nagusira bidaltzen dira, eta datuak www.ingurumena.ejgv.euskadi.net webgunean zintzilikatzen dituzte.

El Gobierno Vasco tiene una red de 67 estaciones que miden y controlan la calidad del aire. Esa red, compuesta por modernos sensores, controla los contaminantes que señala la Directiva Europea, tales como SO₂, oxido nitroso, ozono troposférico, CO y partículas de suspensión. La estación de Beasain está situada en la plaza Gipuzkoa. Todos los datos se publican en la web del Gobierno Vasco.

Udal euskaltegiak 25 urte bete ditu

Beasaingo udal euskaltegiak ikasleen eta herritarren iritziak liburu batean bildu nahi ditu, mende laurdena bete dutela ospatzeko.

Beasaingo udal euskaltegiak 25 urte bete ditu aurten, eta hori ospatzeko, hainbat ekitaldi egiten ari dira urtean zehar. 1987ko irailean sortu zenetik, 4.000 ikasle inguru pasa dira udal euskaltegitik. Orain, ikasle izandako horien eta gainontzeko herritar eta eragileen gogoetak eta mezuak bildu nahi dituzte. Horretarako, Oroimenaren liburua prestatu dute. Liburua euskaltegiako sarreran dago jarrita, eta bertan, nahi duenak idatzi bat, bertso bat edo marrazkiren bat egin dezake. Liburua, «euskaltegiaren ondare moduan» geldituko dela azaldu du Mari Paz Martin zuzendariak.

Gaur egun 150 ikasle ditu udal euskaltegiak, eta horiei zerbitzua emateko, sei irakasle eta administrari bat dituzte. Aurrera begira, «jendearengana hurbiltzen asmatzea eta bakoitzak duen perfilaren araberrako eskaintza egitea» izango da helburu nagusia. Hori eta teknologia berrietan sartzea; zentzu horretan, *beasaingoudaleusk.blogariak.net* bloga eta twitter kontua ere sortu dituzte.

Bestalde, udarako ikastaroak antolatu dituztela ere jakinarazi dute. «Egunean lau orduko ikastaroa izango da; ekainaren 25etik uztailaren 20ra izango da bat, eta bestea irailean». Izena emateko epea, hil honen 15ean bukatuko da.



Euskaltegiako Memoriaren liburua.

El euskaltegi municipal cumple 25 años y ha organizado varios actos para celebrarlo. Uno de ellos es el Libro de la memoria, donde quieren reunir las opiniones y comentarios de todas las personas que han pasado por el euskaltegi. Hoy en día, tienen 150 alumnos, seis profesores y una administrativa.

Obrak esleitzeko baldintza berriak

Udalak egiten dituen obra publikoetan langileen lan baldintzak bermatze aldera, irizpide berriak hartu ditu udalak. Hala, hemendik aurrera Gipuzkoako eraikuntzako konbenioa betetzen duten enpresak hartuko dira kontuan esleipenak egiteko garaian. Neurri horrekin, azpikontratazioak murriztu nahi dira, izan ere, azpikontrataturako enprestan, langileak «oso baldintza txarretan» aritzen dira lanean. Baldintza horiek, ikastetxe publikoetako obretan aplikatuko dira aurreneko aldiz.

El ayuntamiento aplicará un nuevo requisito a la hora de contratar obras públicas. De cara a que se respeten las condiciones laborales de los trabajadores, sólo se tendrán en cuenta las empresas que cumplan el convenio del sector de la construcción. Con esta medida, se quieren reducir las subcontrataciones, ya que en estas empresas, las condiciones laborales no son buenas. Las primeras obras en la que se aplicará dicha medida, serán las de de los colegios públicos.



Film laburren lehiaketa martxan

Dagoeneko martxan dago Beasaingo film laburren II. lehiaketa. DBHko eta Batxilergoko ikasleei eta 18-29 urte arteko gazteei dago zuzendua. Sari banaketa eta lanen emanaldia hilaren 22an egingo dute, bi saiotan: Usurbe antzokian, 19:30ean eta Bideluze plazan, 22:30ean.

El II. Concurso de cortos de Beasain ya está en marcha. La entrega de premios será el día 22. Se harán dos proyecciones, una en la sala Usurbe, a las 19:30, y la otra al aire libre, en la plaza Bideluze, a las 22:30 de la noche..

Liburutegia goizez irekiko dute udan

Udako oporraldia dela eta, ekainaren 11tik irailaren 14ra bitartean, Beasaingo udal liburutegia goizez bakarrik egongo da irekita, 09:00etatik 14:00etara bitartean.

Debido a las vacaciones de verano, del 11 de junio al 14 de septiembre, la biblioteca municipal abrirá sus puertas sólo por las mañanas, desde las 9:00 hasta las 14:00.

Gizarte sailaren urteko memoria

Beasaingo Udalaren gizarte sailak 2011. urteko memoria egin du. Txostena irakurri nahi duenak, udalaren webguneko (beasain.org) 'berriak' atalean aurki dezake.

El departamento de asuntos sociales ha publicado la memoria correspondiente al año 2011. Se puede consultar en la página web del ayuntamiento.



San Joan bezperan neskatxen soka-dantza egingo dute. Argazkia: Aurtzaka

Ekaina

15 ostirala

16:00 Berritsu eta Txelotxe ludoteken ikasturte amaierako festa, plazan.

17:00 Eizu gaztelekuaren ikasturte amaierako jaia.

20:00 Loinatz musika eskolako koral taldearen eta abesbatzaren kontzertua, Andre Mari zeruratuaren parrokiaren.

16 larunbata

10:00 Udal euskaltegiak antolatuta, Getariara egun pasako irteera.

16:30 Eizu gaztelekuaren ikasturte amaierako jaia.

19:30 Loinatz musika eskolako banda, Loinazko San Martin plazan.

17 igandea

06:00 Tomas Salazarren omenezko Aizkorriko birra, Aizkorri Mendizale Elkarteak antolatuta.

16:30 Eizu gaztelekuaren ikasturte amaierako jaia.

21 osteguna

19:30 Musika eskolaren ikasturte bukatu erako kontzertua, Igartzako jauregian.

Zuzenketa

Beasain Egunez Egun aldizkariaren 39. zenbakian, Iñigo Apaolaza udaleko zerbitzu burua zela jartzen zuen, baina Apaolaza, brigaden taldeko arduraduna da; udaleko zerbitzu burua, berriz, Jose Inazio Aramendi da.

22 ostirala

19:30 Film laburren lehiaketako lanen emanaldia, Usurbe antzokian.

22:30 Film laburren lehiaketako lanen emanaldia, Bideluze plazan.

23 larunbata

21:30 San Joan bezperako ekitaldiak. Txistularien goiera Barrendain plazara.

22:00 Neskatxen esku-dantza, Aurtzaka dantza taldearen eskutik.

22:30 San Joan sua. Ondoren dantzaldia Koskola txarangarekin.

24 igandea

12:00 Gala Ballet eskolako ikasturte amaierako ikuskizuna, Usurbe antzokian.

Erakusketak

Ekainaren 8tik 17ra: Beasain Institutuko arte batxilergoko ikasleen lanak, Usurbe antzokiko erakusketa aretoan.

Ekainaren 21etik uztailaren 1era: Bear pintura tailerrean egindako lanak, Usurbe antzokiko erakusketa aretoan.

Ezkiagako jaiak

23 larunbata

14:30 Bazkari herrikoia.

18:00 Musika jaialdia.

28 osteguna

10:00 Umeentzako puzgarriak.

19:30 Buruhandiak eta txistulariak.

20:00 Txistorra eta sardina jana.

22:00 San Pedro sua.

Zapatari kalea

23 larunbata

11:00 Txupinazoa eta umeen jolasak.

13:30 Umeentzako bazkaria.

13:30 Poteoa eta segidan, bazkaria.

15:30 Puzgarriak eta umeentzako ikuskizuna.

16:00 Helduentzako jolasak.

17:30 Arku tiraketa erakustaldia.

Arriarango jaiak

29 ostirala

11:30 Suziriak.

12:00 Meza.

13:00 Zizka-mizkak eta trikitilariak.

14:30 Herri bazkaria.

17:30 Karta joko txapelketa.

30 larunbata

17:30 Pilota partidak.

19:30 Sari banaketa eta trikitilariak.

21:00 Herri afaria eta dantzaldia.

00:00 Txotx denboraldiaren amaiera.

Uztailak 1 igandea

19:30 Herri kirol saioa: aizkolariak.

20:30 Afari-merienda.

beasain egunez egun

Argitaratzailea: Beasaingo Udala

Helbidea: Loinazko San Martin plaza

Posta elektronikoa: udala@beasain.net

Telefona: 943 02 80 50

Webgunea: www.beasain.org

Diseinua: Bidera Zerbitzuak